



**EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO**



IHESAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNERAKO EUSKO LEGEBILTZARRAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

DECLARACION INSTITUCIONAL DEL PARLAMENTO VASCO PARA EL DÍA INTERNACIONAL DE LA LUCHA CONTRA EL SIDA

Euskadin, gaur egun, GIB/Ihesa duten 7.000 pertsona baino gehiago bizi dira. Urtero, 160 infekzio berri inguru gertatzen dira, hau da, beste infekzio bat bi egunean behin.


En Euskadi a día de hoy, viven más de 7.000 personas con VIH/sida. Cada año, se producen alrededor de 160 nuevas infecciones, suponiendo una infección cada dos días.

Azkeneko 2 hamarkadetan, tratamendu antirretrobiralek aurrerapen izugarri adierazgarri bat izan dute. Tratamendu horiei esker, birusa hartu berri duten pertsonak bizi-kalitate on bat izateko aukera dute, bai eta GIB/ihesik gabeko pertsonak dutenaren antzeko bizi-itxaropena ere. Tratamendu horien eraginkortasunak ahalbidetzen du 160 pertsona horien diagnostikoa oso urruti egotea 80ko urteetan infektatu zirenek zutenetik. Hainbat pertsonarentzako heriotza-zigor hura, gaur egun, infekzio kroniko bihurtu da. Birus horrekin, bizi-kalitate on bat eduki daiteke, eta kalkulatu da GIB/ihesik gabeko pertsonak dutenaren antzeko bizi-itxaropena dutela. Tratamenduek lortzen dute, portzentaje handi batean, GIB/ihesa duten pertsonak karga biriko detektaezina izatera iristea; egoera horrek, osasun maila handi batez gain, birusa beste pertsona batzuei transmititzeko ezintasuna dakar.

Durante las 2 últimas décadas, los tratamientos antirretrovirales, han experimentado un avance enormemente significativo. Estos tratamientos permiten, que las personas que acaban de adquirir el virus, puedan gozar de una buena calidad de vida y una esperanza de vida similar a la de las personas sin VIH/sida. La eficacia de estos tratamientos, permite que el pronóstico de esas 160 personas diste mucho del que tenían las personas que en los años 80 se infectaron. Aquella sentencia de muerte para tantas personas, a día de hoy se ha convertido en una infección crónica. Con ella, se puede tener una buena calidad de vida, y se estima que una esperanza de vida similar a la de las personas sin VIH. Los tratamientos consiguen en un porcentaje alto, que las personas con VIH/sida lleguen a tener carga viral indetectable, condición que implica, además de un alto grado de salud, la imposibilidad de transmisión a terceras personas.

Beraz, argi dago lortu beharreko helburuetako bat infekzio horren eta berri lotutako beste batzuen diagnostiko goiztiarra dela.

Por tanto, es claro que uno de los objetivos a conseguir, es el diagnóstico precoz de esta y de otras infecciones relacionadas en nuestra sociedad.



Nahiz eta GIB/ihesaren tratamenduak eta eremu klinikoa beste ezein gaixotasunetan bezala eboluzionatu diren, beldurra, estigma eta diskriminazioa Euskadin bizi diren 7.000 pertsona horiek eta une hauetan gure gizartean gertatzen ari diren infekzio berriak inguratzen dituzten zamak dira. Eremu zientifikoa eta soziala ez dira eboluzionatu erritmo berean.


Eusko Legebiltzarrak GIB/ihesaren epidemiaren aurrean duen konpromisoa berresten du eta, zehazki, GIB/ihesa duten pertsonen estigma, diskriminazioa eta bazterketa sustatu dezaketen oztopo guztiak ezabatzearekin duena, Konstituzioak ezartzen dituen oinarriko eskubideak baliatuzetik urruntzen baititu.

GIB/ihesa duten pertsonen hainbat arazo sozial eta juridikori aurre egin behar diete, infekzio horren kalifikazio nahasiaren ondorio direnak; izan ere, oraindik ere gaixotasun kutsakortzat hartzen da, infekzio transmitigarria izan arren. Kalifikazio zaharkitu horrek eragina du GIB/ihesa duten pertsonen bizitzako arlo guztietan, eta oztopo gisa funtzionatzen du eskubideak eta askatasunak baliatzeko eskuratzeko, eta, gainera, ondorio praktiko kaltegarriak ekartzen ditu hainbat arloan, hala nola funtzio publikoan sartzea, bereziki Ertzaintzan, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoetan eta Indar Armatuetan; lanerako eskubidearen arloko mugak, bereziki prozedura inbaditzaileak erabiltzen dituzten osasun arloko lanbide batzuk; osasun- edo bizi-aseguruak kontratatzean egoten diren bazterketak; publikoari oro har eskaintzen zaizkion zerbitzu batzuk ukatzea; pertsona horien

Si bien, los tratamientos y el ámbito clínico del VIH/sida, han evolucionado como en ninguna otra enfermedad, el miedo, el estigma y la discriminación, son losas que rodean a estas 7.000 personas que viven en Euskadi y a las nuevas infecciones que en estos momentos se están produciendo en nuestra sociedad. El ámbito científico y el social, no han evolucionado al mismo ritmo.

El Parlamento Vasco, renueva su compromiso frente a la epidemia del VIH/sida, y en concreto a la eliminación de todas aquellas barreras que pueden promover el estigma, la discriminación y la exclusión de las personas con VIH/sida del ejercicio de los derechos fundamentales que la Constitución establece.

Las personas con VIH/sida se enfrentan a numerosos problemas sociales y jurídicos derivados de la confusa calificación de la infección que sigue considerándose como contagiosa cuando se trata de una infección transmisible. Esta calificación desfasada repercute en todas las esferas de la vida de las personas con VIH/sida, funcionando como barrera para el acceso al ejercicio de derechos y libertades, y acarreando consecuencias prácticas perniciosas en múltiples ámbitos como el acceso a la función pública, en especial a la Ertzaintza, los Cuerpos y Fuerzas de Seguridad del Estado, y de las Fuerzas Armadas; las limitaciones en el derecho al trabajo, en especial en las profesiones sanitarias que realizan procedimientos invasivos; las exclusiones en la contratación de seguros de salud o de vida; las denegaciones de servicios ofertados al público en general; las



intimitate pertsonalean edo haien datu pertsonaletan egiten diren esku-sartzeak; adin gabeko bat adoptatzeko, hartzeko edo zaintzan edukitzeko eskubidea baliatzeko zailtasuna, adibide batzuk aipatzearren.

Oztopo juridiko horiek eragotzi edo zaildu egiten dute askatasuna eta aukeraberdintasuna benetakoak izatea, eta GIB/ihesa duten pertsonak egiazki integratzea bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean, Espainiako Konstituzioko 14. eta 9.2 artikuluek aurreikusten duten bezala.

Horri guztiorri erantzunez, Eusko Legebiltzarrak:

- Eskatzen du alda dadila GIB/ihesaren katalogazioa "gaixotasun infekto-kutsakorretik" "gaixotasun infekto-transmitigarri" Espainiako legedi estatalean.

- Ildo berean, animatzen du diskriminaziozkoak izan daitezken lege, erregelamendu eta klausulak indargabetzera, indarreko legedian GIB/ihesarekin zerikusia dutenak, etorkizuneko politika eta araudi bidezkoak eta ebidentzia zientifikoari egokituak bermatzeko.

- Konpromisoa hartzen du gizarteratze-politiken sustapen eta bultzadarekin, GIB/ihesa duten pertsonen eta haien senideen parte-hartze aktiboa eta normalizatua ahalbidetzeko.

intromisiones en su intimidad personal y en sus datos de carácter personal; la dificultad para ejercer el derecho a adoptar, acoger o tener la custodia de un menor, por citar sólo algunos ejemplos

Estas barreras jurídicas, impiden o dificultan que la libertad y la igualdad de oportunidades sean reales, y que haya una integración efectiva de las personas con VIH/sida en la vida política, económica, cultural y social, tal y como prevén los artículos 14 y 9.2 de la Constitución Española.

En atención a todo ello, el Parlamento Vasco:

- Insta a modificar la catalogación del VIH/sida de "enfermedad infecto contagiosa" a "enfermedad infecto transmisible" en la legislación estatal española


- En el mismo sentido, anima a derogar las leyes, reglamentaciones y cláusulas que puedan ser discriminatorias relacionadas con el VIH/sida en la legislación vigente para garantizar políticas y normativas futuras justas y adecuadas a la evidencia científica.


- Se compromete con la promoción e impulso de políticas de Inclusión Social que permitan la participación activa y normalizada de las personas con VIH/sida y sus familiares.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko azaroaren 30ean.


EUSKO ABERTZALEAK


Euzko Alkartasuna


Euzko Sozialistak


Euzko Berdeak
GPV-E